



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritza eta Madrilgo Gobernua Itsas Museoaren patronatuan sartzeko eskaerea egin dabe**

Bizkaiko Batzar Nagusiek arauz besteko proposamen bat onartu dabe gaur goizean, Foru Aldundiari Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoaren Patronatuaren aurrean egin beharrekoak egin daizan eskatzeko, “Patronatu horretara barriro be bueltau daitezcan Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernua”. Proposamena aurkeztu dauen PP taldeak adierazo dauenez, 2009. urtera arte Kultura Ministerioa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoaren Patronatuaren kide izan ziran. Ekimenak EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoa lortu dau, Bizkaiko Ahal Dugu abstenidu egin da eta EH Bilduk kontrako botoa emon dau.

Arturo Aldecoa popularrak esan dauenez, Itsas Museoak hazkunderako “oso potentzial handia” dauka lurraldeko kultur guneen sarearen barruan, baina badauka arazo bat: “finantzaketea”. “Gure iragan industrialagaz lotuta” dagoan museo hori etorkizunean indartu eta “Penintsula iparraldeko itsas museo hobereana izan daiten” lortu ahal izateko, beharrezkoa izango da kudeatzaileek baliabide ekonomiko gehiago lortzea. Bere ustez, Madrilgo gobernua eta Eusko Jaurlaritza patronatuan sartzen badira, beste ekimen pribadu batzuk be Bilboko kultur gunearen babesleei gehituko jakez.

“Ez saiatzeagaitik ez daitela izan, baina gaitza izango da gobernuek bat egitea dirua jarri behar bada”, esan dau PSE-EE-ko Juan Oterminek, eta zalantzan jarri dau ordezkari popularrak esandakoa, Madrilgo gobernua eta Eusko Jaurlaritza erakunde horretako patronatuko kide izan ziranik. “Kontu Publikoen Euskal Epaitegiaren 2013ko Txostenean ez dot patronatuko kide izan diranik aurkitu, kultur ekimenetan parte hartu dabela baino ez dut aurkitu”, esan dau. Oterminen eretxiz hoba izango litzateke Bilboko Udalak, Portu Agintaritzak, Merkataritza Ganbarak eta Aldundiak osatutako patronatuak berak “bideratzea eskaerea gobernu bie”.

EH Bilduk ez dau ekimenaren aldeko botorik emon gura izan, ez datorrelako bat museoaren kudeaketa ereduagaz. “Erakundeen arteko lankidetzeta” eskatzeaz gain, euren berbetan bi babesle publiko sartzek kontabilidadean baino ez leuke eraginik izango. “Diru gehiago jasota ez da ezer konpontzen, ez bada kudeaketa eredu aldutzen”. “Gogoeta sakona” eskatu dabe, eredu hori “barriro formulatuko”, gaur egun dagozan baliabideak hobeto erabili ahal izateko.

Batzarretako Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeak ondorioztatu dauenez, logikoena eskaria patronatutik bertatik bideratzea izango litzateke, eta ez Aldunditik, harek daukan konbentzitze gaitasuna “mugatua” izan arren. Eskaria egin deutso PP taldeari, Madrilgo gobernuari jagokonez, bere taldeak ekimena aurkeztu daian Madrilgo Diputatuen kongresuan.

### **ITSASONTZI ONDAREAREN INBENTARIOA**

Itsasoagaz erlazionautako gaiak baztertu barik, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak, PP-k eskatuta, itsasontzi ondare historikoaren osagai garrantzitsuak iraunarazoteko aurreikusitako ekimenak eta beste erakunde, norbanako eta administrazino batzuekaz akordioak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

lortzeko Aldundiak dauen estrategia eta aurrera eroango dituan ekintzak zehaztu ditu. Agerraldia eskatu dauen PP taldearen eretxiz, Aldundia da ondare hori berreskuratzeko eta balioan jarteko behar horreek koordinatu behar dituna, eta bera izan behar da behar horien buru.

Beste ezer baino lehen, ondarea zaintzea “ez dala erraza” autortu dau Bilbaok, eta “batzuetan” itsasontzi bat guztiz galtzeko arriskua dagoala. Sailean hiru hilebetetan egindako lanak “ikuspegi orokorra barneratze” aukerea emon deutso, eta bere sailak etorkizunerako estrategia jasoten dauen “zirriborroa” prestatu dau. Oraindino “hasi barri dagoan” ideak batzarretako taldeen eta beste erakunde batzuen ekarpena behar dau, Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena, batez be, bere berbetan “alkarren artean behin betiko” proposamena ezarteko.

Euskera eta Kulturako diputatu andreak autortu dauenez “hainbat arazo” dago, eta horreen artean “itsasontzien sakabanaketa geografikoa”, “kontserbazino egoerari jagokonez dagoan aniztasuna”, eta itsasontzi ondarearen “askoren titularidadea”.

Adierazo dauenez, konponbidea “herrialde ikuspegitik” etorriko da, ganerako erakundeakaz batera jarduteko, “kontserbazinoaren eraginkortasunari jagokonez logika bat aurrera eroan ahal izateko”. Ondino egin barik dagozan eginbeharren artean “existiduten dan itsasontzi ondare guztiaren inbentarioa” egitea egongo litzateke, eta uste dau horretarako beharrezkoa dala “itsasontzi bakotxaren ebaluazioa egiteko beharrezkoak diran erespideak eta parametroak adostea”. Egoki iruditzen jako, baita be, “Jardunbide Onen Liburu Zuria” idaztea, behar hori ahalik eta baldintza hoberenetan egin ahal izateko.

Ataza hori itsasontzien “bideragarritasun planakaz” osatu beharko litzateke. Plan horreetan itsasontzien jomuga eta eskuratzeko posibleak zehaztu beharko litzatekez. Eta “guztiz beharrezkoa da” “gai horretan orientauko gaituen aditu batzordea” sortzea.

Bilbaoren eretxiz, proposamena “urritik aurrera” hasiko litzateke zehazten ganerako erakundeakaz, “urtea bukatu baino lehenago” aditu batzordea osatuta izateko eta baita epe luzean, “10 edo 15 urteko epealdirako”, aurrera eroan beharreko jarduketa zehatzen kronogramak be. Halanda be, uste dau Bizkaia “onartu egin behar dauela ezinezkoa izango dala dagoan ondare guztia kontserbetea”. “Ezin doguz lau lebatz itsasontzi euki”. “Bildumeak homogeneous izan behar dau, dagozan baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz”, adierazo dau.

## ERROMATARREN KASTROAK BIZKAIAN

Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe Foru Aldundiak “Bizkaiko erromatarren aurreko kastroak ikertu eta horreen zabalkundea egin eta balioan jarteko estrategia sistematikoa bultzatu daiala, ia guztiz ezezagunak dira-ta, kasu batzuk kenduta, herritar gehienentzako.”

Arauz besteko proposamena defendidu dauen Arturo Aldecoa batzordekide popularraren eretxiz, epe ertainera eta luzera “bizitzeko eta babesteko egitura horreek” ikertu eta horreen zabalkundea egin eta balioan jarteko strategiaren bat atontzea beharrezkoa da, gai honetan azken urteetan egindako ikerketak aprobetxautu. Behar “sistematikoa” egitearen aldeko apustua egin dau, etorkizuneko belaunaldiek “iraganari buruzko ikuspegi zuzena izan daien”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bizkaiko Ahal Dugu taldeko Elsa Pamparacuatroren ustez ekimena “interesgarria” da, erromatarren aurreko iraganeko garai hori “guztiz” ezezaguna dalako. Azterlana ikerlari “guztiei” zabaltzea eskatu dau.

EH Bilduk kritikau egin dau gai hori Batzarretan hainbat aldiz eztabaidatu izana, azkena 2011n aurkeztu zan arauz besteko proposamen batean. PP-k “proposamen berbera” aurkeztu dauela esan dau.

EAJ-PNV taldea bat etorri da PP-gaz Bizkaiko gizarteak antxinako asentamendu horreei buruz “gitxi dakiala” esatean. Aldecoak esan dauen moduan, Bizkaiko hainbat puntutan aurkitu daitezke: Malmasin, Bolumburu, Lujar, Pico Moro, El Peñón, Berreaga, Kosnoaga, Maruelezta, Gastiburu, Tribisburu, Tromoitio, Delika, Lamindano, Larraganena, Lezama edo Lemoa. Halanda be, jeltzaleek Aldundiak leku horreetan egin dauen beharra autortu dabe.

#### GERNIKAKO BATZARRETXEKO SINADURA ALBUMA

PP-k eskatuta, Lorea Bilbaok Gernikako Batzarretxeko Sinadura Album zaharraren desagertpenari buruzko informazioa emon dau. “Ondino ez dogu liburuia aurkitu. Ez da agertzen egindako inongo inbentariotan, eta ez da erraza katalogauta ez dagoan zeozer aurkitzea”. Berba horreek esan ondoren, alea leku horretan ez egoala jakinarazo zanetik Aldundiak emon dituan pausu guztiak, banan banan, zehaztu ditu diputatu andreak.

Diputatu andreak azaldu dauen moduan, saileko teknikariek liburuaren pista jarraitu dabe Aldundiak Gernikako Batzarretxeko fondo bibliografikoei buruz egin dituan azkenengo inbentarioetan, guztiak be garai demokratikoan egindakoak, 1978, 1995 eta 2006. urteetan, hain zuzen be. Bilaketeak ez dau emaitzarik emon orain arte. Aldundiak liburuari buruz dauen azkenengo erreferentzia, Bilbaoren berbetan, “1944ko erosketa faktura” da, eta horrek ale hori existidu dala erakusten dau. “Arazoa” liburuia “ez dagoala inbentariauta” da, esan dau.

Bilbaok adierazo dauenez, sailaren helburua ale hori aurkitzea da, “osorik edo parte bat”, eta zabalik jarraitzen daben ikerketen emaitzari buruzko informazioa Batzar Nagusietan emoten jarraitzeko konpromisoa hartu dau. “Ez dogu esfortzurik aurreztuko aurkitzeko”, esan dau diputatu andreak, eta ez dau baztertu aurrerago salaketa bat jarteko aukerea, enkanteren batean edo agertzen bada jardun ahal izateko. Batzarretako taldeek hori egitera animau dabe.

“Ez bada agertzen, egokiena salaketea jartea izango da”, ale horrek “dirutzea” balio dauelako, esan dau Arturo Aldecoak, eta uste dau salaketarik jarten ez bada liburuaren ganeko eskubidea galduko litzatekela. 1879an Foruak desegin eta gero, antxinako Probintzia Diputazioaren esku geratu zan XIX. mendeko alea da. PSE-EE-ko Juan Oterminnek esan dauenez, “gaur egungo Foru Artxibategiko arduradunei ezin jake leporatu liburuia desagertu izana”, eta PP taldeagaz bat etorri da, Aldundiak “salaketa izapideren bat” egin beharko leukela esatean.

Orain arte, “zoritzarrez, jaso dogun informazioak ez deusku idatzizko ezta jatorrizko erreferentziarik aurkitzeko aukerarik emon” Maria Diaz de Haroko Foru Artxibategian. Bilbaok ez dau itxaropenik galdu, baina ez dau baztertu XX. mendean izandako “transferentzia askotakoren” batean “garbiketaren bat” gertau izana.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales piden que los Gobiernos central y vasco se reincorporen al patronato del Museo Marítimo**

Bilbao, a 6 de octubre de 2015

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana una proposición no de norma en la que se insta a la Diputación Foral a realizar las gestiones oportunas ante el Patronato de la Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao para “promover la reincorporación al mismo del Gobierno Vasco y del Gobierno Español.” Según el grupo proponente, el PP, hasta el año 2009, tanto el Ministerio de Cultura como la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco fueron miembros de dicho Patronato. La iniciativa ha contado con el apoyo de PNV, PSE-EE y PP, mientras que Podemos Bizkaia se ha abstenido y EH Bildu ha votado en contra.

El popular Arturo Aldecoa ha sostenido que el Museo Marítimo tiene un “enorme potencial” de crecimiento dentro de la red de centros culturales del territorio, pero que tiene un problema: “la financiación”. Para potenciar en el futuro este museo "embrollado con nuestro pasado industrial" y conseguir que sea “el mejor museo naval del norte de la península”, se necesita conseguir por parte de sus gestores mayores recursos económicos. Piensa que la entrada en el patronato de los gobiernos central y vasco supondrá un impulso para que otras iniciativas privadas se sumen a los patrocinios del centro cultural bilbaíno.

“Por intentarlo que no quede, aunque será difícil que se sumen si hay que poner dinero” ha cuestionado Juan Otermin del PSE-EE, quien ha discutido al representante popular el hecho de que Gobierno Vasco y Gobierno Central hayan participado alguna vez en el patronato de dicha entidad. “En el Informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de 2013 no he encontrado que hayan sido miembros del patronato, sino más bien que han colaborado en iniciativas culturales”, ha dicho. Otermin cree que sería mejor que el mismo patronato, compuesto por el Ayuntamiento bilbaíno, la Autoridad Portuaria, la Cámara de Comercio y la Diputación, “eleve la solicitud a los dos gobiernos”.

EH Bildu se ha negado a apoyar la iniciativa por no compartir el modelo de gestión del museo. Al tiempo que pedían “colaboración interinstitucional” creen que la entrada de los dos patronos públicos sólo tendría efectos contables. “Sólo por ingresar más dinero no se soluciona nada, si no se cambia el modelo de gestión”. Han solicitado una “reflexión profunda” con la intención de que se “reformule” este modelo para optimizar los recursos actuales.

Por su parte, el grupo juntero Nacionalistas Vascos (PNV) ha llegado a la conclusión de que sería más lógico que la petición se dirigiera desde el mismo patronato y no desde la Diputación, aunque la capacidad de convicción de aquella sea "limitada". Han emplazado al PP a que, en lo que atañe al Gobierno central, tome la iniciativa en Madrid su grupo parlamentario.

### **INVENTARIO DEL PATRIMONIO NAVAL**

Sin salirnos de la temática naval, la diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha detallado, a petición del PP, la estrategia foral y las acciones que tiene previstas realizar su Departamento



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

para alcanzar los acuerdos necesarios con otras administraciones para una eficaz preservación de los elementos relevantes del patrimonio histórico naval. El grupo PP que había pedido su comparecencia, cree que es la Diputación la institución que debe coordinar y liderar estos trabajos de recuperación y puesta en valor de este patrimonio.

En primer lugar, Bilbao ha reconocido que cuidar del patrimonio es "complicado", y "a veces" se corre el riesgo de la pérdida total de una embarcación. Después de tres meses de trabajo en el departamento que le ha permitido "imbuirse de una perspectiva general", su departamento ha definido un "borrador" de estrategia para el futuro. La idea, todavía "en mantillas", requiere de la aportación de los grupos junteros y otras entidades, principalmente la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno vasco, para establecer, según ella, una propuesta "conjunta y definitiva".

La diputada de Euskera y Cultura ha reconocido que existen "varios problemas", entre los que ha citado "la dispersión geográfica de las embarcaciones", "la dispersión en cuanto a criterios de conservación", y "la titularidad diversa" de los vestigios navales.

Según ella, la solución vendrá de una "visión de país" para actuar de forma conjunta con el resto de instituciones "con el objetivo de desarrollar una lógica en cuanto a la eficiencia de la conservación". Entre las tareas que faltan, estaría la de realizar "un inventario de todo el patrimonio naval existente" y, para eso, cree que es conveniente "consensuar los criterios y los parámetros necesarios para hacer la evaluación de cada una de las embarcaciones". Cree oportuno también redactar un "Libro Blanco de Buenas Prácticas" para que el trabajo se lleve a cabo en las mejores condiciones.

Esta labor se tendría que completar a su juicio con "planes de viabilidad" de las embarcaciones, en el que se detallen el destino de las mismas y las posibles adquisiciones. Y es "absolutamente necesario" que se cree una "comisión de expertos que tengan autoridad en la materia y que nos pueda orientar".

Para Bilbao, la propuesta comenzaría a concretarse "a partir octubre" con el resto de instituciones, para "antes de fin de año", tener conformado el comité de expertos y un cronograma con actuaciones concretas a desarrollar a largo plazo, "para un periodo de 10 o 15 años". Aún así, cree que Bizkaia debe "asumir que no va a ser posible mantener todo el patrimonio existente". "No podemos tener cuatro merluceras". "La colección tiene que ser homogénea, aprovechando y optimizando los recursos existentes", ha mantenido.

## CASTROS PRERROMANOS DE BIZKAIA

Asimismo, las Juntas Generales han aprobado por unanimidad que la Diputación Foral promueva "una estrategia sistemática para la investigación y puesta en valor del conjunto de los castros prerromanos que jalonan nuestro territorio, y que –salvo algunos casos– son prácticamente desconocidos por la mayoría de la población."

Para el apoderado popular Arturo Aldecoa, defensor de la proposición no de norma, es "necesaria una estrategia a medio y largo plazo de investigación difusión y puesta en valor" de estas "estructuras de habitación y defensa" que aproveche las investigaciones realizadas en los



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

últimos años. Apuesta por un trabajo “sistemático” para que las generaciones futuras “tengan una visión correcta del pasado”.

Elsa Pamparacuatro, de Podemos Bizkaia, ha calificado la iniciativa de “interesante”, ya que se desconoce “por completo” esta época del pasado, anterior a los romanos. Ha pedido que el estudio se abra a “todos” los investigadores.

EH Bildu ha criticado que el tema haya sido debatido en distintas ocasiones en la Cámara, la última en una proposición no de norma del año 2011. Ha cuestionado al PP que presenten “la misma propuesta”.

Por su parte, desde el PNV ha compartido con el PP lo referente a que la sociedad vizcaína "poco conoce" de estos antiguos asentamientos que como ha apuntado Aldecoa se pueden encontrar en distintos puntos de Bizkaia: Malmasín, Bolumburu, Lujar, Pico Moro, El Peñón, Berreaga, Kosnoaga, Maruelezta, Gastiburu, Tribisburu, Tromoitio, Delika, Lamindano, Larraganena, Lezama o Lemona. Los jeltzales han reconocido, sin embargo, el trabajo que ha realizado la Diputación sobre el terreno.

#### ALBUM DE FIRMAS DE LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA

Lorea Bilbao ha informado, a petición del PP, de la desaparición del antiguo Álbum de Firmas de la Casa de Juntas de Gernika. “Todavía no hemos encontrado el libro. No aparece en ningún inventario de los que se han realizado y es difícil encontrar algo que no está catalogado”. Tras estas palabras, la diputada ha ido relatando, uno a uno, todos los pasos que la Diputación ha ido dando desde que se hizo público que el ejemplar no se encontraba en dependencias forales.

Como ha explicado la diputada, los técnicos del departamento han seguido la pista del libro en los últimos inventarios que ha hecho la Diputación de fondos bibliográficos de la Casa de Juntas de Gernika, todos ellos realizados en la época democrática, concretamente en los años 1978, 1995 y 2006. La búsqueda ha resultado infructuosa. La última referencia sobre el libro de la que hay constancia en la Diputación, según Bilbao, es en “una factura de compra de 1944” que demuestra que el ejemplar ha existido. El "problema" es que el libro “no está inventariado”, ha dicho.

Según Bilbao, el objetivo del departamento es localizar “en su totalidad o en parte” dicho ejemplar y se ha comprometido a seguir informando en Juntas Generales del resultado de unas investigaciones que siguen abiertas. “No vamos a escatimar esfuerzos para encontrarlo”, ha dicho la diputada, que no descarta presentar una denuncia más adelante por si se diera el caso de que saliera a la luz en alguna subasta, algo que los grupos junteros le han animado a llevar a cabo.

“Si no aparece, lo prudente es denunciarlo” ya que el ejemplar vale “un dineral” ha coincidido Arturo Aldecoa que piensa que de no presentarse denuncia se perdería el derecho sobre el libro, un ejemplar del siglo XIX que, a partir de la disolución de los Fueros en 1879, se sabe que pasó a ser custodiado por la antigua Diputación provincial. “No cabe imputar a los responsables del Archivo foral actual la desaparición del libro”, ha señalado Juan Otermin, del PSE-EE, que coincide con el PP en que la Diputación debe llevar a cabo “algún trámite de denuncia”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Hasta la fecha, “lamentablemente la recogida de información no nos ha permitido encontrar referencias escritas, ni originales” en el Archico Foral de María Díaz de Haro. Bilbao no pierde la esperanza pero no ha descartado tampoco que en alguna de las “muchas transferencias” que se han producido a lo largo del siglo XX, se haya producido “un expurgo”.